

Furgoia ostu zuten GRAPOko kideak Bartzelonatik atera dira

BARTZELONA

Astelehenean Bartzelonako Galerías Preciados saltoki handian furgoi blindatu bat lapurtu zuten lau GRAPO kideek hiri honetatik alde egin dutela baieztatu zuen atzo Poliziak. Komando honek mugikortasun handia erakutsi duela azpimarratu zuen Poliziak eta hori dela eta, jadanik Bartzelona eta bere inguruko hirietatik joan egin dela.

13 milioi pezeta eta zaindarien armak lapurtu zituzten hiru gizon eta emakumea

GRAPOko kideak zirela ziurtatu zuen herenegun Poliziak, lekukotasunei eta hatz arrastoei esker. Atrakatzaileen artean, Fernando Silva Sande dago, joan den martxoan Granadako espetxetik ihes egin zuen GRAPOko buruetako bat. Berarekin, batera, Isabel Santamaria del Pino, Valentin Benito Iñigo eta Enrique Cuadra Etxeandiak hartu zuten parte Bartzelonako lapurketan. Joan den irailean GRAPOko beste komando batek antzeko lapurketa egin zuen eta 18 milioi pezeta eraman.

RPR eta UDFk hautagai bakarri izango dute barrutien % 85etan

A. S. / **BAIONA**

Eskuineko oposizioa osatzen duten RPR eta UDF alderdiak akordio batera iritsi ziren astearte gauean, datoren martxoan egongo diren hauteskundeetako hautagaien kontu. Alain Juppe (RPR) eta Gerard Longuetek (UDF) iragarri dutenez, oposizioak hautagai bakar bat aurkeztuko

du hauteskunde barrutietako % 85etan eta primarioerik ez da izango, beraz, % 15etan baizik.

Kasu honetan ere, oposizioa bi hautagaien artean erasorik ez dela izango eta bigarren postuan azalduko denak lehena irtengo denaren alde boto egitea deituko duela zehaztu zuten Juppe eta Longuetek.

Altamira eta Zunzunegi auzoetara sartzeko bidea berriro jartzea, N-1 Errepideko 419,500 p.k.tik (Castilloko Gurutzebidea) eta 422,650 p.k. arteko (Beasain-Ordiziako tunela) bikoiztura (gakoa: 2-A-V-118/88) Proiektuan sartuta dagoena.

1992ko Abenduaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 248 zk.an, Altamira eta Zunzunegi auzoetara sartzeko bidea berriro jartzeak, N-1 Errepideko 419,500 p.k.tik (Castilloko Gurutzebidea) eta 422,650 p.k. arteko (Beasain-Ordiziako tunela) Bikoiztura Proiektuan (Gakoa: 2-A-V-118/88) sartuta dagoenak, erasandako ondasun eta eskubideak okupatzeko behararen deklarazioa eman da argitara.

Iragarkian bidea berriro jartzeak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda zehatz eta banakatua ere ageri da.

Donostia, 1993ko Urtarrilak 7.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Garraio eta Bide Azpiegitura Departamentua

Uholdeak kalte material izugarriak sortu ditu Britainian eta Ardenetan

Eskualde batzuetan 100 litrotik gora ur erori da metro karratuko

Frantziako mendebalde eta ekialdeko erregioetan astelehenaz geroztik dirauten etengabeko euriteek uholde larriak eragin dituzte. Britainia, Cotentin eta Ardenak eskualdeetan erreka eta ibai guztiak urez gainditu dira, baina kalte material handiak eraginagatik, uholde horiek ez diete oraindik bertako bizilagunei ondorio txarrik ekarri.

A. SOKARROS / **BAIONA**

Eguraldiaren azterketarako zerbitzuaren arabera, Britainia eta Cotentin (Normandia) herrialdeek azken hiru egunotan jasandako uholdea mende honetako larriena da. Orain arte bederen, bertako bizilagunetan biktimarik ez badute eragin ere, ur gainditze horiek kalte material eta ekonomiko handiak sortu dituzte. Honela, Britainiako Loire Atlantique departamenduan kokatua den Isse hirian 'Atlas' lan-tegiko 120 enplegatuak behin-behineko langabeziara behartuta egon dira, Don ibaiko urak langunean sartzeagatik. Calvados departamenduan ere (Cotentin) ehun langileko lantoki bat bere iharduera gelditzera behartuta egon da arrazoi berengatik.

Beste herri eta hiri asko bezala, Caen (Normandia) erabat urpean zegoen herenegun arratsez geroztik eta atzo ere bai. Izan ere, hiri hau zeharkatzen duen Orme ibaia bere bidetik irten zen eta bertan kokatutako hamar barraderak berak ere urpean harrapatuta zeuden. Are larriago, Alençon hiriko (Calvados) ospitalea kinka txarrean zegoen atzo, urak behereko partean erabat sartuak baitziren.

BEZaren auzian ikertutako 250 enpresa errugabe direla dio Moreiras epaileak

MADRIL

Ustez BEZ faktura faltsuak erosi zituzten 600 enpresetatik 250 akusazio guztietatik at uztea erabaki zuen atzo Miguel Moreiras Entzutegi Nazionalako epaileak. Enpresa hauek, bost milioi pezeta baino gutxiagoko iruzurra egin zutenak dira. Moreirasen arabera, «delitu fiskalaren orde, zerga ordainketa eza besterik ezin zaie leporatu» 250 enpresa hauei. Enpresa guzti hauek, egin edo jaso ez zituzten lanen BEZaren fakturak aurkeztu zituzten, Haziendari zerga txikiagoak ordaintzeko.



Mendeko uholderik larriena pairatu dute britainiarrek.

AP

ONDORIO KUTSAKOR UGARI

Uholde horiek kutsadurari lotutako ondorio txarrik ere ekarri dituzte. Honela, Cotentin eskualdeko Barfleur hirian eta bere inguruneko 16 herritan ez zen etxean jasotako uretik edaten ahal, lur azpiko ur eremuak nekazaritzan erabiliak diren produktuez kutsatuta egonik. Britainiako ehun bat herritan ere urean nahasitako nitrato neurria hein arriskugarrietara hurbiltzen ari zen. Hein hori gaindituta zen, ordea, Sant-Brieg-en (Britainia) zeren hiri honetan etxebizitzetan

banatutako urak 53 miligramo nitrato baitzeukan litro bakoitzeko.

Britainian eta Normandian metro karratuko 100 litro inguruko euriteak gertatu badira, ia egoera berdintsua pairatu du Frantziako ekialdeak, batez ere Ardenak eskualdeak. Bertan, euririk etengabe iraun zuen atzo eta Sedan hiria eta ingurune guztiak 70 zentrimetro urpean ziren. Meurthe et Moselle departamenduan, Cher ibaiaren heina lau metrotera iritsia zen atzo eta gora egiten jarraitzen zuen.

tura faltsuen auziatatik erantzun beharko dute. Beren agiriak argitu ez dituzten enpresak ere ikertuko ditu Moreirasek.

BANCO DE SANTANDERREN FIDANTZA

Beste auto batean, Santanderri ezarritako 8.000 milioi pezetako fidantza altxatzea jakinarazi zuen Moreirasek. Epaileak onartu egin du banketxeak aurkeztutako errekurtsioa, baina ez ordea, honek eskatutako sumarioaren artxibatzea. Entzutegi Nazionalak segituko du banketxe honek ustez egindako irregular-tasunak ikertzen.

Joan den urteko urtarrilean 600 ziren ikertutako enpresak, beraz, 350ek oraindik BEZ fak-